


Begoña Fernandez:

«Etxetik irten behar duten emakumeei behin behineko bizitokia eskeini nahi diegu»

Gurekin, Begoña Fernandez, Ermuko udaletxeko emakumearen laguntzarako bulegoaren arduraduna dugu. 1989 ko apiriletik dago lanpostu honetan. Bere lana eta bera, oso interesgarriak iruditzen zaizkigunez, hona hemen berari egin diogun elkarrizketa.



DROGETENITTURRI: Zer da Udal zerbitzu hau?

BEGOÑA: Gizarte-ongizate arlotik, emakumearen laguntzarako zerbitzu honenkin Ermuko emakume guztioi eskeintzen da, alde batetik, emakume izatearekin loturiko dagoen problematika planteatzeko posibilitatea. Horretarako, Informazio Bulego bat dugu, orientabideak, laguntza psikologikoa ... eta abar emateko.

Beste aldetik, premiak babesaren beharrari erantzuteko asmoz, 'babes-etxe' bat dugu. Etxe hau, senarraren-gandik tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeek erabilia izan da, batez ere. Esan behar da dohaingo zerbitzua dela.

D: Zer dela eta edo zergatik sortu zen etxe hau sortzeko ideia?

B: Beno, 84an Ermuko Emakumeen Asanbladak honelako etxe bat sortzeko beharren ideia kaleratu zuen, tratatu txarren problema hain handia zela ikusirik.

86an, egoera hau aurre egiteko beharra azalduz, proiektu bat presentatu zuen Udaletxean, 'Tratu txarrak jasaten dituzten Emakumeentzako Informazio Bulegoa eta Babes-etxe' Baten sorkuntza proposatuz.

Gero, 87an Udaletxeak proposamen hori hartu eta berregin zuen, Babes-etxea sortuz, Abenduan, baina aldeketa aipagarri batzuekin:

— Ez zen emakumeentzako bakarik, baizik eta etxe-bizitza gabeko familientzako ere.

— Asanbladak proposatzen zuen Informazio Zentroa ez zuten sortzen babes-etxearekin batera.

Azkenean, 88an, 'Emakumearen laguntzarako Bulegoa' funtzionatzen hasi zen.

D: Zeintzuk dira Babes-etxe honen helburuak eta zer lortzea espero duzue?

B: Larrialdietarako etxea denez, helburu nagusia behin-behineko bizitoki bat eskeintzea da, etxetik irten behar duten emakumeei. Gero, Bulegoaren bidez, beharrezkoa den informazioa, laguntza eta orientabideak eskeintzen dizkiegu. Honela, gure ustez, egoera honetan dagoen emakumeek irtenbide baliotsu bat bilatzen dute, hain gogorra den erabakia hartu ahal izateko.

Larrialdietarako etxea denez, helburu nagusia behin-behineko bizitoki bat eskeintzea da.

D: Emakume bat, egoera larri batean aurkituz gero, zer pausu edo zer egin beharko luke etxe honetara joateko?

B: Etxetik alde egin behar duenak, Emakumearen laguntzarako Bulegora joan behar du. Cardenal Orbe enparantzan dago, 2. zenbakian, lehenengo pisuan. Handik berehala eramango dugu babes-etxera, emakumea eta seme-alabak ere, izatekotan. Hau, goizez gertatzen baldin bada. Arratsaldean, gauetan edo jai-egunetan, oster, Udaltzainengana joan beharko du. Bere egoera azaldu ondoren babes-etxera eramango dituzte.

Gero, 'Sartze-komisioak' kasua aztertuko du zehazki, nolako laguntza behar duen, ... eta abar.

D: Hor egoten diren emakumeen arazo larrienak zeintzuk dira orokorrean?

B: Emakume hauek aspaldidanik jasaten dituzte tratatu txarrak, senarraren-gandik fisiko, psikologiko zein sexualak.

Horretaz gain, arazo ekonomikoak ere larriak izaten dira, etxetik alde egitekoan zentimorik gabe joaten direlako. Ez daukate lanik, ezta lortzeko posibilitaterik ere, lanerako kualifikaziorik ez dute eta.

Gehienetan arazo psikologikoak ere nabariak dira: depresioa, errudun sentitzea, beldurra, segurtasunik ez ...

Gainera, auzitegiko asuntoak poliki doaz eta banantze edo dibortzioaren prozesoa oso luze eta garesti irtetzen da.

D: Etxe horretara joan izan diren emakumeen senarrekin, tira-bira gogorrik izan dituzue?

B: Batzuetan, egoerak oso grabea denean, hau da, eten gabeko tratatu txarrak, hil mehatxuak ... etb., noiz edo noiz senarrak etortzen dira bulegora, galdezka, edo damutuak ...

Babes-etxeko helbidea sekretuan gordetzen bada ere, posible da senarrak enteratzea, hara joan eta istuluak sortzea.


Baina horrelako kasuetan, emakumeek badakite zer egin behar duten eta Poliziari dei bat eginez konpontzen da.

D: Emakume horiek haurrak daukatenean, zein arazo eta nola antolatzen duzue barneko bizitza?

B: Inoiz ez dugu izan problemarik, ezta haurrekin ere. Berehala moldatzen dira beraien artean eta pozik egoten dira, etxeko istilu eta palizak ez ikustean. Laguntasuna eta Elkartasuna sortzen da.

Barneko bizitza antolatzeke badaude neurri batzuk, oinarritzko arautegia: gar-

MENDIOLA JATETXEA



Erdikokale, 19, Tlf.: 943-172243
48260 ERMUA

biketa, jatea, mantenimendua, suguritatea ere (oso inportantea dena) ... etab.

Baina emakumeek berehala hartzen dute etxeko erritmoa eta ez da problemarik sortzen.

Haurrak berehala moldatzen dira beraien artean eta pozik egoten dira, etxeko istilu eta palizak ez ikustean.

D: Zer nolako demanda duzue? Zenbat emakume pasatu dira?

B: 1989 urtean bi emakume eta 1.990 urtean bederatzi (beraien seme-alabekin).


Bulegotik oso lan ona egin da Ermuko emakumeek zerbitzua ezagutu dezaten. Horregatik, demanda gero eta handiagoa da, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen arazoa ere handia bait da.

D: Etxe honetatik irten eta gero, zeintzuk dira bilatzen dituzten irtenbideak?

B: Emakumeen problematika handia izaten da, eta instituzioen laguntza, ordez, eskasa.

Seme-alaba txikiak amarekin geratzen dira normalean, eta amak, askotan, diru eta lanik gabe, ez du bilatzen irtenbiderik.

Bestaldetik, herri honetan ez dago, adibidez, hartzaindegirik edo eskoletan bazkaltzeko lekurik... Orduan, non utzi seme-alabak, lan egin ahal izateko?



Beraz, ez da betere erraza. Dena den, eta praktikak esaten digun moduan, egoera horrekin, tratu txar horiekin bukatzea erabaki duten emakumeak, lehenengo pausua —gogorrena— eman eta gero, dauden errekursoak erabiliz, irten dira.

Jakina, egon badaude emakume batzuk senarrarekin itzultzen direnak, baina, kasu hauetan ere, etxeko egoeraren aldaketa txiki bat lortzen da.

D: Zerbait gehiago esan edo salatu nahiko zenuke?

B: Beno, ikusten denez, gaur egun dagoen moduan, zerbitzu mugatu bat da.

Etxe hau, senarrarengandik tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek erabilia izan da, batez ere.

Premiazko laguntzaz gain, emakumearen egoera berezia aldatzeko ekintzak beharrezkoak dira ere, sexuen artean dagoen desberdintasuna gainditu ahal izateko arlo guztietan: enplegu, prestakuntza, kultura...

Hori ere oso inportantea da: gizarte osoarentzako sensibilizazio kanpainak burutzea, estereotipo sexistak kentzeko programak prestatzea ... Niretzat, bestea baino garrantzitsuagoa da. Baina Udal Zerbitzuan, gaur egun, atal hori baztertu samar geratzen da; arduradunaren lan-orduak mugatuak direlako (20 ordu, astean).

ARTARRAI
Opari eta apainketa
Begira eta aurkitu opari eta apainketarako artikulu ugariak
Goienkale 5,